


**EUSKADIKO IBAI-EKOSISTEMEN  
ETA GUNE BABESTUEN GIDA**  
GUÍA DE LOS ECOSISTEMAS Y ESPACIOS  
FLUVIALES PROTEGIDOS DE EUSKADI



Europar, Natura 2000 sareak Batasuneko lurraldearen %18,14 hartzen du; Euskadin, aldiz, %20,5.

En Europa, la Red Natura 2000 abarca el 18,14% del territorio de la Unión, mientras que en Euskadi supone un 20,5%.

# Natura 2000 Sarea Euskadin

## La Red Natura 2000 en Euskadi

Habitaten galerak eta ekosistemen aldatketak eragindako kezkak naturaguneak kontserbatzeko eta biodibertsitatea babesteko interesa piztu du. Kezka horren ondorioz, figura batzuk sortu dira, besteak beste, Natura 2000 sarea, Europar Batasunak 1992an ezarri zuena.

La preocupación por problemas como la pérdida de hábitats y la alteración de los ecosistemas ha suscitado el interés de conservar los espacios naturales y proteger la biodiversidad. Ante dicha preocupación nacen espacios como la Red Natura 2000, establecida por la Unión Europea en 1992.

**Natura 2000** sarea babes geografikoko bi figura-motaz osatuta dago:

- **Kontserbazio bereziko eremuak (KBE)**
- **Hegaztientzako babes bereziko eremuak (HBBE)**

Euskadin, **parke naturalak** eta horien moduko gune babestuak **KBE** figuraren barruan daude (lehen BIL, hots, Batasunaren Intereseko Leku, esaten zitzaien). Dena den, izen horretan sartzen diren beste eremu txiki batzuk ere badira. Guztira, gure lurraldean **47 KBE, 4 HBBE** eta bi figurak bateratzen dituzten **4 gune misto** daude.

## Zein desberdintasun dago KBEen eta HBBEen artean?

**KBE**ak ingurumen aldetik interes handiko guneak dira, haien biologia, ekosistema eta habitat dibersitatea dela eta. **HBBE**etan hegaztiak dira nagusi, finkapen luzeko guneak direlako (ugaltzeko edo habia egiteko) edo migrazioan funtsezko enklabeak direlako (hala nola padurak eta hezeguneak).

La **Red Natura 2000** está formada por dos tipos de figuras de protección geográfica:

- **Zonas de Especial Conservación (ZEC)**
- **Zonas de Especial Protección para las Aves (ZEPA)**

En Euskadi, espacios protegidos como los **Parques Naturales** se encuentran bajo la figura de **ZEC** (antes LIC, Lugar de Interés Comunitario), si bien existen otras áreas más pequeñas que también se incluyen bajo esta denominación. En total existen dentro de nuestro territorio **47 ZECs, 4 ZEPAs** y **4 áreas mixtas** que conjugan ambas figuras.

## ¿Qué diferencia un ZEC de una ZEPA?

Los **ZEC** son áreas de gran interés medioambiental por su diversidad, tanto biológica como de ecosistemas y hábitats. En las **ZEPAs** las aves son las protagonistas, bien por tratarse de áreas de asentamiento perpetuo (para la reproducción o anidamiento), o por ser enclaves cruciales en la migración (como las marismas y humedales).

## Elkar-konektatutako sare bat

Haren izenak adierazten duen moduan, helburua **sare bat** sortzea da, alegia, interes ekologikoko guneen egitura interkonektatua, espezieen arteko mugimendua ahalbidetzeko asmoz. Modu horretan, **migrazio genetikoa** ziurtatzen da; beraz, populazioen isolamendua eta horren ondoriozko arazoak saihesten dira eta espezieen eta habitaten epe luzeko biziraupena bermatzen da. Gainera, faktore sozio-ekonomikoa ez da ahazten, alderdi guztietan garapen jasangarriaren aldeko apustua egiten baita.

## Una red interconectada

Como su nombre indica, el objetivo es **crear una red**, un tejido interconectado de áreas con interés ecológico, posibilitando el movimiento de especies entre sí. De este modo se asegura una **migración genética**, evitando el aislamiento de poblaciones y sus consiguientes problemas y garantizando la supervivencia a largo plazo de las especies y hábitats. Todo ello sin olvidarse del factor socioeconómico, apostando por un desarrollo sostenible en todas las facetas.





Baias

## Omecillo, Ayuda eta Baias ibaiak

### Ríos Omecillo, Ayuda y Bayas

Hiru ibai hauek iparretik hegora gorpuzten dute Arabako mendebaldeko sare hidrologikoa. Ibilguaren bukaeran, urak Ebro ibaira isuriko dituzte.

**Omecillo** eta **Ayuda** ibaiak trantsiziozko klima duen eremu batean jaiotzen dira (klima atlantiarra eta mediterranearra nahasten diren zonaldea). Lehenengoa Valderejoko mendigunean jaiotzen da, bigarrena berriz, Kapildui mendia-  
ren magalean.

**Baias** ibaia, ordea, ezberdindu beharra dago. Klima atlantiarra dagoen eremuan du iturburua, isurialdeen banalerroa den Gorbeia mendigunean hasten baitu bere hegoalderako bidea.

Hiru ibaiak paisaia eta ekosistema anitz igarotzen dituzte, gerora hauen dibertsitatearen adierazle izango direnak. Hori dela eta, euskal lurraldean duten ibilgu ia-ia osoa Kontserbazio Bereziko Eremu gisa sailkatua dago.

### Korridore ekologikoak

Ibai hauen ibilguek duten aniztasun klimatikoak eremu bakoitzean berezkoak diren espezieak aurkitzea dakar. Gainera, ibaiak duten

Estos tres ríos articulan de norte a sur la red hidrológica del oeste de Álava. Al final de sus cauces verterán sus aguas al río Ebro.

Los ríos **Omecillo** y **Ayuda** nacen en una zona de clima de transición (una mezcla entre clima atlántico y mediterráneo). El primero nace en el macizo de Valderejo, mientras que el segundo lo hace en las faldas del monte Kapildui.

Sin embargo, debemos diferenciar el río **Baias** de los dos anteriores. Su origen se encuentra en una zona de clima predominantemente atlántico, donde inicia su camino hacia el sur a lo largo del macizo de Gorbeia, el cual marca la divisoria de aguas.

Los tres ríos atraviesan una gran variedad de paisajes y ecosistemas, indicadores de su rica diversidad. Es por ello que, la práctica totalidad de los 3 cauces en su discurrir por territorio vasco está clasificada como Zona Especial de Conservación.

### Corredores ecológicos

La diversidad climática que atraviesan los ríos hace que podamos encontrar especies propias de cada zona climática. Además, hay que

**korridore ekologiko** funtzioa goraipatu beharra dago, Ebro ibaia eta iparraldeko lurraldeak elkar lotuz. Honek, espezie askoren mugimendua ahalbidetzen du eta ipar-hego konexioa gauzatu ere bai.

Hiru ibaien goi ibilguetan ekosistemaren kalitate ekologikoa ona da, ondo kontserbatutako erriberako basoarekin eta kalitate bikaineko urekin. Hegoaldera egin ahala, nekazaritzaren zein herriguneen presioa nabariagoa da. Herrigune oso handiak ez egon arren, nekazaritzak eta azpiegiturek (errepideak, besteak beste) ibai ekosistemak eraldatu dituzte, lehen aipaturiko korridoreen konektagarritasuna murriztuz.

Errekako karramarroak atzerapen itzela jasan du bertoko populazioetan, kanpotik ekarritako eta naturan sartutako karramarro gorriak (*Procambarus clarkii*) eta seinaleldun karramarroak (*Pacifastacus leniusculus*) transmititutako *afanomikosiaren* ondorioz, *Aphanomyces astaci* ondoak gauzatatutako gaixotasuna.



Ayuda (Argazkia: Quintas)

destacar la función como **corredores ecológicos** de estos ríos, uniendo el Ebro con los territorios del norte. Esto permite el movimiento de muchas especies y habilita la conexión norte-sur.

En los cursos altos de los tres ríos la situación ecológica del ecosistema es buena, con un bosque de ribera bien conservado y aguas de excelente calidad. A medida que se avanza hacia el sur, la presión de la agricultura y de los núcleos urbanos es más evidente. A pesar de la ausencia de núcleos de población muy grandes, la agricultura y ciertas infraestructuras (carreteras, entre otras) han transformado los ecosistemas fluviales reduciendo la función conectora de los corredores antes mencionados.

El cangrejo autóctono ha sufrido un gran retroceso en sus poblaciones debido a la *afanomycosis*, enfermedad producida por el hongo *Aphanomyces astaci* y transmitida por el cangrejo rojo (*Procambarus clarkii*) y el cangrejo señal (*Pacifastacus leniusculus*), ambas especies exóticas introducidas por el ser humano.



Bi ugaztun urtarren presentzia azpimarratzekoa da, bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta igaraba arrunta (*Lutra lutra*). Biak espezie mehatxatuen zerrendan aurkitzen dira, horregatik, ibaiak Kontserbazio Bereziko Ereму izendatzearen arrazoi nagusietako bat dira.

Destaca la presencia de dos mamíferos acuáticos, el visón europeo (*Mustela lutreola*) y la nutria europea (*Lutra lutra*). Ambos se encuentran en la lista de especies amenazadas, por lo que son una de las principales causas de la declaración de los 3 ríos como Zona Especial de Conservación.



Baias ibaian, gure lurraldeko erreka gehienetan desagertu den krustazeo bat aurkitu dezakegu, erreka karramarro autoktonoa (*Austropotamobius pallipes*) hain zuzen ere.

En el río Bayas encontramos un crustáceo que ha desaparecido en la mayor parte de los arroyos de nuestro territorio, el cangrejo autóctono de río (*Austropotamobius pallipes*).



Arakil

## Arakil eta Ega-Berron ibaiak

### Ríos Arakil y Ega-Berrón

Arabako ekialdeko ibai hauen ibilguren zati bat eta beraien ibaiadar diren hainbat erreka KBE (Kontserbazio Bereziko Eremu) bezala babestutak daude.

**Arakil** ibaia, Urkilako mendigunean jaio eta ekialderantz abiatzen da, Asparrenako udalerria zeharkatu ondoren Nafarroan barneratuz. Babestutako eremuak arabar lurraldean dituen azken 6 kilometroak biltzen ditu.

**Ega-Berron** ibaia hegoalderago kokatzen da. Ibilgu nagusiaren zati bat, eta Izki eta Berron ibaiadarrak babestutako gunearen barruan daude. Kanpezuko udalerria igaro ondoren, Angostinako arroilean barneratu eta Ebrorako bidea hartzen du Nafarroan barrena.

### Ibarren kontserbazio egoera

Bi ibai hauen kontserbazio egoera oso ezberdina da.

Arakil ibaiaren kasuan, eremu urbanizatuaren presentzia aipatu beharra dago. Ibilguren zati batzuk nahiko eraldatuak ageri dira eta nekazaritzaren presioak ibaiari azalera kendu dio. Guzti honek, berezkoa den erriberako basoaren hedadura murriztu du. Hala ere, badaude ondo kontserbatutako erriberako basoaren zatiak.

Ega-Berron ibaiari dagokionez, populazio murrizteko eremu batean garatzen da, eta ondorioz,

Parte del cauce de estos dos ríos del este de Álava y varios de sus afluentes están protegidos bajo la figura de ZEC (Zona de Especial Protección).

El río **Arakil** nace en el macizo de Urquilla, desde donde se dirige hacia el este penetrando en Navarra tras atravesar el municipio de Asparrena. La zona protegida recoge sus últimos 6 kilómetros en territorio alavés.

El río **Ega-Berrón** se sitúa más al sur. Parte del cauce principal y sus afluentes Izki y Berrón se encuentran dentro de la zona protegida. Tras atravesar el municipio de Campezo, se adentra en la foza de Angostina y toma camino al Ebro ya en territorio navarro.

### Estado de conservación de las riberas

El estado de conservación de ambos ríos es muy diferente.

En el caso del río Arakil, cabe mencionar la presencia de áreas urbanizadas. Algunas partes del cauce se encuentran bastante alteradas y la presión agraria ha restado superficie al sistema fluvial. Todo ello ha reducido la extensión del bosque de ribera natural. Sin embargo, hay partes del bosque muy bien conservadas.

En cuanto al Ega-Berrón, discurre por una zona de población reducida, lo que hace que el desarrollo del bosque de ribera sea el adecua-



Ega-Berron (Argazkiak: Quintas)

ibarbazoaren garapena egokia da ibilguren zati askotan. Edonola ere, badaude eremu artifizialak eta nekazaritzak hartutako lurak. Industria guneen presentzia eza uraren kalitatean nabari den arren, nekazaritzan erabiltzen diren ongariak askotan antzeman daitezke uretan egindako neurketetan.

do en muchas partes del cauce. En cualquier caso, también hay zonas artificializadas y terrenos ocupados por la agricultura. A pesar de que la no presencia de áreas industriales se nota en la calidad del agua, los fertilizantes utilizados en la agricultura son detectados frecuentemente en las mediciones realizadas.

## Erriberako basoaren garrantzia

Errekaren inguruan basoa egoteak, nabarmen babesten du ura eguzkiaren izpietatik. Horrek, iktiofaunaren (arrainen) eta hezetasuna nahitzezkoa duten espezieen aberastasuna berraztertzen du, ura hotz eta ondo oxigenatua mantenduz.

Besteak beste, amuarrain arrunta (*Salmo trutta*) ①, sarboa (*Barbatula barbatula*), barboa (*Barbus graellsii*), ezkailua (*Phoxinus phoxinus*) ② eta iparraldeko loina txikia (*Chondrostoma toxostoma*) aurkitu ditzakegu.

## La importancia del bosque de ribera

La presencia de bosque en las inmediaciones del río protege considerablemente el agua de los rayos del sol. Esto garantiza la riqueza de ictiofauna (peces) y de especies que necesitan de un alto grado de humedad, a la vez que se mantiene un agua fría y bien oxigenada.

Entre otras especies, encontramos truchas (*Salmo trutta*) ①, sarbos (*Barbatula barbatula*), barbos (*Barbus graellsii*), piscardos (*Phoxinus phoxinus*) ② o loinas (*Chondrostoma toxostoma*).



①



②

Lautadako ibaiertzetan oso ohikoak dira makalen landaketak (*Populus sp.*), hazkunde azkarreko zuhaitzak baitira egurren ustiapenerako.

En las riberas de la llanada alavesa son muy frecuentes las plantaciones de chopos (*Populus sp.*), ya que se trata de árboles de crecimiento rápido propicios para la explotación de la madera.





(Argazkia: Quintas)

## Arreoko Lakua

### Lago de Arreo

**Arreo-Caicedo-Yusoko** lakua Arabako hego mendebaldean kokatzen da, Gesaltza Añanako udalerritik gertu.

Lakuak 11 hektarea inguru ditu. Horietatik 6 hektarea ur laminari dagozkio eta horrek 24 metroko sakonera dauka punturik sakonenean. Lakuaren eragin-eremua giro anitzeko lurraldea da, non basoak, sastrakadiak, labore lurrak eta ur inguruneak aurkitu daitezkeen.

El lago de **Arreo-Caicedo-Yuso** se encuentra al suroeste de Álava, cerca del municipio de Salinas de Añana.

El sistema lacustre al completo tiene cerca de 11 hectáreas, 6 de las cuales corresponden a la lámina de agua que alcanza los 24 metros de profundidad en su punto más profundo. El área de influencia del lago es un territorio de múltiples ambientes donde se pueden encontrar bosques, matorrales, tierras de cultivo y entornos puramente acuáticos.

### Agua salada

El lago de Arreo es el mayor sistema natural de lagunas continentales de Euskadi y uno de los pocos lagos formados sobre chimeneas salinas a nivel peninsular. El agua salada emerge desde el subsuelo, formando una gran variedad de hábitats de alto valor científico.

La diversidad de los ecosistemas y sus características específicas dan lugar a una muy variada diversidad de especies, lo que subraya la necesidad de proteger esta zona.



Uretan *Utricularia vulgaris* landare haragijale bitxia topa dezakegu.

En el agua crece la curiosa planta carnívora *Utricularia vulgaris*.





*Txixi-burruntzi*  
Caballito del diablo  
(*Coenagrion mercuriale*)

Uretako makroornogabeen 27 familia ezberdin aurkitu dira. Animalia horiek kate trofikoaren oinarri dira, beraz, beraien presentziak beste hainbat espezie aurkitzea dakar.

Se han contado hasta 27 familias diferentes de macroinvertebrados acuáticos. Estos animales son la base de la cadena trófica, por lo que su presencia implica la presencia de otras muchas especies.

## Ur gazia

Arreoko lakua Euskadiko aintzira sistema kontinental natural nagusia da, eta penintsula mailan, tximinia gatzdunen gainean eraturakako laku bakarrenetako bat. Hori dela eta, ur gazia azaleratzen da lurrazpitik, balio zientifiko handiko ekosistema anitz eratuz.

Ekosistemen dibertsitateak eta horien ezaugarri bereziak espezie-aniztasun aberatsa eragiten dute, eta horrek eremu hori babesteko premia azpimarratzen du.

## Bioaniztasun aberatsa

Eremu gatzdunetako landaretza berezia aurkitu dugu aintziraren bazterretan, eta horrek eremuari interes nabarmena ematen dio. Landare halofitoak dira, hau da, gatz kontzentrazioa altua duten lurzoruetan hazten diren espezieak. Horien artean, aintziraren inguruan hasten diren ihitokiak nabarmentzen dira.

Hegaztiak suposatzen dute aintzirako faunan dibertsitate handiena, 29 espezie zenbatu baitira hezegunean. Hegazti espezie askoren migratorako eta negua igarotzeko lurraldea dugu hau.

Igel eta apoen ugalketa eremu aipagarria da Arreoko lakua, espezie batzuen kontzentrazio harrigarriak ikusi direlarik. Europan topa ditza-kegun anfibio gehienak hemen daude, klima atlantiarreko espezieak eta mediterraneo aldeko espezieak bertan bat egiten baitute.



Montepellierrko sugea (*Malpolon monspessulanus*) oso urria da Autonomi Erkidegoko lurraldean.

La culebra bastarda (*Malpolon monspessulanus*) es muy escasa en el territorio de la Comunidad Autónoma.

## Rica biodiversidad

En las orillas del lago encontramos vegetación propia de áreas salinas, lo que otorga un interés notable al entorno. Se denominan plantas halófitas, es decir, especies que crecen en suelos con alta concentración de sal. Entre ellas destacan los juncales que crecen alrededor de la laguna.



Aintzira mirota (*Circus aeruginosus*) urte osoan zehar ikus dezakegu lakuaren inguruan.

El aguilucho lagunero (*Circus aeruginosus*) puede verse durante todo el año alrededor del lago.

Las aves suponen la mayor diversidad del sistema lacustre, con 29 especies censadas en el humedal y alrededores. La principal razón es que este es territorio de migración e invernada de muchas especies de aves.

El lago de Arreo destaca como lugar de reproducción para ranas y sapos, donde se han observado sorprendentes concentraciones de algunas especies. La mayor parte de los anfibios que podemos encontrar en Europa se encuentran aquí, donde confluyen las especies de clima atlántico y mediterráneo.



Sobrongo urtegia / Embalse de Sobrón

## Ebro ibaia

### Río Ebro



*Apoarmatu  
korrontezalea*  
Galápago leproso  
(*Mauremys leprosa*)

Arabako hegoaldeko muga naturala da **Ebro** ibaia, Burgosko eta Errioxako lurralde Euskal Autonomia Erkidegotik bananduz. Ibaiaren Kontserbazio Bereziko Eremua Sobrongo arroilatik Logroño ingurura arte hedatzen da, Euskadin zehar duen ibilgu osoa alegia.

Ebro ibaiak meandro zabalak osatzen ditu, inguruko lurralde ureztatu eta ongarrirituz. Gizakiak mendeetan zehar ustiatu ditu, nekazaritzarako eremu emankor ezin hobekak baitira.

### Ibaia, ardatz egituratzailea

Ebro ibaiak korridore ekologiko bezala duen funtzioa azpimarragarria da, iparraldeko zein hegoaldeko hainbat ibai sareen konexioa ahalbidetzen baitu.

Kontuan izan behar da ibai horretan bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) eta igaraba arruntaren (*Lutra lutra*) Euskadiko populazio nagusiak daudela. Hortaz, ibai horren eta bertako ekosistemen kontserbazio egokia funtsezkoa da espezie horien populazioak mantendu eta beste ibai sare batzuetara zabaltzeko. Era berean, populazio ezberdinak isolatuta ez egotea ahalbidetzen du, haien arteko harremanak eta elkar-truke genetikoak bermatuz.

El río **Ebro** es como una frontera natural al Sur de Álava, ya que separa Burgos y La Rioja de la Comunidad Autónoma Vasca. La Zona Especial de Conservación del río se extiende desde la hoz de Sobrón hasta su entrada en Logroño, lo que supone la totalidad de su cauce en Euskadi.

El río Ebro forma amplios meandros, regando y abonando los terrenos circundantes. Estos han sido explotados durante siglos por el ser humano, ya que se trata de zonas fértiles ideales para la agricultura.

### El río, eje vertebrador

Destaca la función del río Ebro como corredor ecológico, puesto que permite la conexión entre diferentes redes fluviales tanto del norte como del sur del territorio.

Hay que tener en cuenta que en este río se encuentran las principales poblaciones vascas de visión europeo (*Mustela lutreola*) y nutria europea (*Lutra lutra*). Por lo tanto, su adecuada conservación y el correcto estado de conservación de sus ecosistemas es fundamental para mantener las poblaciones de ambas especies, además de ayudar a su extensión a otras redes fluviales. También permite que las diferentes poblaciones no estén aisladas, garantizando las relaciones e intercambio genético entre ellas.



Arabako Errioxako lurrak / Tierras de la Rioja Alavesa

## Landare habitat bereziak

Erriberako basoen galera historikoa nabarmena izan den harren, nekazaritzarako lurrak sortzeko gehienbat, badaude landare komunitate egitura konplexuen adibideak.

Ondo garatutako erriberako basoak topa ditzakegu, bai eta garapen bidean dauden makaldi eta zumardiak ere. Balio handieneko ibarbasoaren adibide batzuk Gimeleoko bihurgunean, Bastidako sotoan eta Lapuebla de Labarca eta El Esperaleko sotoetan kokatuta daude. Ertzetako landare komunitate horiek faunarentzat ezinbesteko babesleku, ugalketa gune eta elikagai iturri dira.

Ebro ibaiaren zabalera eta sakonera oso esanguratsuak dira, hortaz, habitat bereziak sortzen dira. Ibaiertzeko milazkak adibidez, edota ur emari geldoa eta etengabea beharrezkoa duen eta inguru lohitsuetaera egokituriko landaretza.

Txoko hauetan ematen diren baldintzak lagunduta, arrain espezie askoren komunitateak mantentzen dira. Horien artean goraiatzekoak dira errutilo hegalgoria (*Achondrostoma arcasii*), ibai kabuxa (*Salaria fluviatilis*) edota hegoaldeko katxoa (*Squalius pyrenaicus*).



Hegoaldeko katxoa (*Squalius pyrenaicus*) iberiar penintsulako endemismoa da.

El cacho o zaparda (*Squalius pyrenaicus*) es un endemismo de la península ibérica.

## Hábitats vegetales singulares

Aunque la pérdida histórica del bosque de ribera para la creación de tierras agrícolas ha sido notable, existen ejemplos de complejas estructuras de comunidades vegetales.

Podemos encontrar varios ejemplos de bosques de ribera bien desarrollados, así como choperas y alamedas en desarrollo. Algunos de estos bosques de ribera están situados en la curva de Gimeleo, en el soto de Labastida y en los sotos de Lapuebla de Labarca y El Esperal. Las comunidades vegetales de las orillas constituyen refugio, zona de reproducción y fuente de alimento imprescindible para la fauna.

La anchura y profundidad del río Ebro son muy significativas, por lo que se generan hábitats singulares. Los tamarizales de ribera, por ejemplo, o la vegetación adaptada a zonas fangosas que requiere de un caudal lento y constante de agua.

Ayudados por las condiciones que se dan en estos rincones, se mantienen comunidades de muchas especies de peces. Entre ellos destacan la bermejuela (*Achondrostoma arcasii*), el blenio de río (*Salaria fluviatilis*) o el cacho (*Squalius pyrenaicus*).

*Ephedra fragilis* espeziearen ezagutzen diren euskal populazio bakarrak Ebro ibaian daude.

Las únicas poblaciones vascas conocidas de efedra (*Ephedra fragilis*) se encuentran en el río Ebro.





## Gipuzkoako Ekialdeko ibaiak

### Ríos del Este de Gipuzkoa

Ondorengo ibaiak Gipuzkoako ekialdean daude, eta guztiek antzeko ezaugarriak eta egitura dituzte.

**Oria**, Aizkorri-Aratz mendien magalean jaio eta Orio herrian itsasoratzen da. Hala ere, bere goiko ibilgua soilik babestuta dago, **Araxes** eta **Leizaran** ibaiadarrak barne. Araxes erreka Tolosako herrigunean batzen da Oriarekin. Leizaran erreka, berriz, Andoainen elkartzen da.

**Urumea** ibaiari dagokionez, Euskal Herriko eremu euritsuenean jaiotzen da, Artikutzan. Ondoren, Gipuzkoako lurraldean barneratu eta itsasoa Donostian aurkituko du. Kontserbazio Bereziko Eremuak ibilgu osoaren 11 km suposatzen ditu, Añarbeko urtegitik Hernanira bitarteko zatian.

Los siguientes ríos están situados al este de Gipuzkoa, todo ellos con características y estructura muy similares.

El río **Oria** nace en las faldas de los montes de Aizkorri-Aratz y desemboca en Orio. Sin embargo, sólo está protegido su cauce superior, incluidos los afluentes **Araxes** y **Leizaran**. El arroyo Araxes se une al Oria en el casco urbano de Tolosa. El Leizaran, por su parte, se junta en Andoain.

En cuanto al río **Urumea**, nace en la zona más lluviosa de Euskal Herria, Artikutza. Después, se adentra en territorio de Gipuzkoa hasta unirse con el mar en Donostia. La ZEC supone 11 km de todo el cauce, en el tramo comprendido entre el embalse de Añarbe y Hernani.



Hainbat esku-hartze egin dira, hala nola presak kentzea edo ur-jauziak lehenagortzea, arrainen migrazioan oztopo bihur ez daitezen.

Se han realizado diversas intervenciones como la eliminación de presas o la restauración de los saltos de agua para evitar que se conviertan en un obstáculo en la migración de los peces.

### Presión del ser humano

En las riberas de todos estos ríos se encuentran numerosos testimonios de antiguas actividades humanas, como molinos y ferrerías. Son fácilmente apreciables las diferentes edificaciones, presas y canales que encontramos a lo largo de los cauces.

En los dos últimos siglos, la mayoría de complejos instalados junto a los ríos han sido centrales hidroeléctricas. Algunas de ellas siguen en funcionamiento.



Añarbeko urtegia (Urumea)  
Embalse de Añarbe (Urumea)

## Gizakiaren presio handia

Ibai horien ibaiertzetan aintzinako giza jardueren testigantza ugari aurkitu daitezke, hala nola errotak eta burdinolak. Aztarna nabarmenak dira ibilguetan zehar aurki ditzakegun eraikuntza, presa eta ubide ezberdinak.

Azkeneko bi mendeetan zentral hidroelektrikoak izan dira errekan ezarritako eraikin gehienak. Horietako batzuk martxan daude oraindik.

Gertuko mendi-magaletan, bere aldetik, zura lortzeko landaketek baso naturalak eraldatu dituzte. Kasu gehienetan intsinis pinua (*Pinus radiata*) izan da landatutako espeziea, eta zenbait kasutan ibaiertzeko basoa ordezkatu du. Landaketa hauen presentziak aldaketa nabarmenak sortzen ditu ibaien erregimen hidrikoan, emaria gutxituz eta ibilguak lohiez betez kontrolgabeko higaduraren ondorioz.

## Izokina bueltan da

Arrainen komunitateei dagokionez, lau dira ibaia horietan aurkitu daitezkeen espezie nagusiak, amuarrain arrunta (*Salmo trutta*), ezkailua (*Phoxinus phoxinus*), sarboa (*Barbatula barbatula*) eta izokin arrunta (*Salmo salar*) ①. Lehenengo hirurak ohiko espezieak dira, izokinaren presentzia, ordea, azpimarratu beharra dago. Antzina desagertu bazen ere, ibaien ibilguan egindako hobekuntzei esker ibai hauetako populazioek gorantz egin dute.

Hurbiltasun geografikoa dela eta, Gipuzkoako ekialdeko ibaietan Pirinioetako berezko espezieak aurki ditzakegu, hala nola uhandre pirinio-tarra (*Calotriton asper*) ② edo muturluze piri-niarra (*Galemys pyrenaicus*).

En las laderas cercanas, por su parte, las plantaciones para obtener madera han transformado los bosques naturales. En la mayoría de los casos la especie cultivada ha sido el pino insigne (*Pinus radiata*), llegando a sustituir al bosque de ribera en algunos casos. La presencia de estas plantaciones produce cambios sustanciales en el régimen hídrico de los ríos, disminuyendo el caudal y llenando los cauces de lodos debido a la erosión incontrolada.

## El salmón está de vuelta

En cuanto a las comunidades de peces, son cuatro las especies principales que se pueden encontrar en estos ríos; la trucha común (*Salmo trutta*), el piscardo (*Phoxinus phoxinus*), el sarbo (*Barbatula barbatula*) y el salmón común (*Salmo salar*) ①. Las tres primeras son especies habituales, pero destaca la presencia del salmón común (*Salmo salar*). Aunque en su momento desapareció, las mejoras realizadas en el cauce de los ríos han permitido que las poblaciones de estos ríos hayan aumentado.

Dada su cercanía geográfica, en los ríos orientales de Gipuzkoa podemos encontrar especies propias de los pirineos, como es el caso del tritón pirenaico (*Calotriton asper*) ② o del desmán del pirineo (*Galemys pyrenaicus*).





Praela de la Paul

## Guardiako aintzirak

### Lagunas de Laguardia



Karramarro gorria /  
Cangrejo rojo  
(*Procambarus clarkii*)

Guardiako aintzirak Arabako Errioxako bihoitzean kokatuta daude, Guardia herrigunearen inguruan. Kontserbazio Bereziko Eremua **lau aintzirak** osatzen dute, garai batean inguruan zeuden urmael txikien arrastoak.

Jatorrizko hezegunea labore lurak zabaltzeko lehortu egin zen. Izan ere, nekazal lurralde baten erdian kokatuta gaude, hain preziatua den Errioxako ardoa ekoizten duten mahastiz ingurata.

### Lau aintzira natural eta artifizial bat

Hiru aintzira endorreikoak dira, hau da, dinamika naturala jarraitzen dute eta urtaroarean arabera lehortu edo urez bete egiten dira: **Carralogroño, Carravalseca eta Musco**.

Aitzitik, urte osoan ura duen bakarra **Praela de la Paul** da, urmaelaren mutur batean presa bat eraikia duena. Ondorioz, arrain eta krustazeo komunitate bakarrak hemen daude, gizakiak modu artifizialean sartutako espezieak guztiak.

Las lagunas de Laguardia están situadas en el corazón de la Rioja Alavesa, en las inmediaciones del núcleo urbano de Laguardia. La Zona Especial de Conservación está formada por **cuatro lagunas**, restos de un pequeño humedal que antiguamente existía en la zona.

El humedal original se secó para extender las tierras de cultivo. No en vano, nos encontramos en el centro de un territorio agrícola, rodeados de viñedos que producen el tan preciado vino de Rioja.

### Cuatro lagunas naturales y una artificial

Tres de los lagos son endorreicos, es decir, siguen una dinámica natural por la que se secan o llenan de agua según la época del año: **Carralogroño, Carravalseca y Musco**.

Por el contrario, la única laguna que tiene agua durante todo el año es **Praela de la Paul**, la cual tiene construida una presa en uno de sus extremos. En consecuencia, las únicas comuni-



Koartza gorria /  
Garza imperial  
(*Milvus milvus*)


Arrainen kasuan, kanpotik ekarritako bi espezie inbaditzaile aurkitu daitezke, karpa arrunta (*Cyprinus carpio*) eta urre-arraina (*Carassius auratus*). Bestetik, jatorri amerikarra duen karramarro gorria (*Procambarus clarkii*) daukagu, kontrolik gabe sartu omen zena hurbil dagoen Ebro ibaitik ekarrita.

## Aintzira sistemaren garrantzia

Guardiako aintzirak Natura 2000 Sarean sartzeko arrazoi nagusia hegaztientzako duten garrantzia izan da. Urmael sistema txiki izanagatik hegazti kopuru handi batek erabiltzen du, migrazioan deskantsatzeko, elikatze puntu bezala, edota negua igarotzeko. Guztira 118 espezie desberdin identifikatu dira, kopuru berean esanguratsua sistemaren hedadura xumea kontuan izanda.

Bertan aurki daitezkeen espezieen artean koartza gorria (*Ardea purpurea*), zankaluzea (*Himantopus himantopus*) edo arrano txikia (*Hieraaetus pennatus*) goraipatu ditzakegu.

Landaretzari dagokionez, laku endorreikoei loturiko eremu gatzdunetan garatzen den landaretza berezia aipatu beharra dago. Izan ere, lakuetako urak urtean zehar duen maila aldatetek, gatzen kontzentrazioan eta maila freatikoaeren sakoneran eragina zuzena dute.



Landare espezieen artean EAEan mehatxatuta dauden 6 espezie aurkitu daitezke, hauen artean *Himantoglossum hircinum*.

Entre las especies vegetales encontramos 6 especies amenazadas en la CAE, entre ellas *Himantoglossum hircinum*.



Carralagroño

dades de peces y crustáceos se sitúan aquí, todas ellas introducidas artificialmente por el ser humano.

En el caso de los peces, se pueden encontrar dos especies exóticas invasoras, la carpa común (*Cyprinus carpio*) y el pez dorado (*Carassius auratus*). Por otro lado, tenemos el cangrejo rojo (*Procambarus clarkii*), de origen americano y que se introdujo sin ningún control desde el cercano río Ebro.

## Importancia del sistema lacustre

La principal razón para que las lagunas de Laguardia se integren en la Red Natura 2000 ha sido su importancia para las aves. El pequeño sistema de lagunas es utilizado por un gran número de aves, para descansar en la migración, como punto de alimentación o para invernar. Se han identificado un total de 118 especies diferentes, un número realmente significativo teniendo en cuenta la modesta extensión del sistema.

Entre las especies presentes destacan la garza imperial (*Ardea purpurea*), la cigüeñuela (*Himantopus himantopus*) o el águila calzada (*Hieraaetus pennatus*).

En cuanto a la vegetación, hay que mencionar la vegetación especial que se desarrolla en zonas salinas ligadas a lagos endorreicos. De hecho, los cambios en el nivel del agua a lo largo del año afectan directamente a la concentración de sales y a la profundidad del nivel freático.



Lea ibaiaren Padura / Marisma del río Lea  
(Egilea / Autor: K. Sarasola)

## Lea eta Artibai

### Lea y Artibai

Bizkaiko ekialdean kokatzen diren ibilgu laburreko ibaiak dira, kantauriar isurialdean ohikoa den bezala. Biak Oiz mendiaren magalean jaio eta iparralderantz abiatzen dira ibaiadar ezberdinetatik edanez. Lea erreka Lekeitioan itsasoratzen da, eta Artibai, berriz, Ondarroan.

Bi ibaien arro hidrografikoek Lea Artibai eskualdea osatzen dute.

### Paisaia eraldatua

**Lea eta Artibai** ibaien ibilgu nagusi osoa Kontserbazio Bereziko Eremuaren barnean dago.

Bi erreken bidean ez dago populazio nukleo handiegirik. Learen kasuan Aulesti eta Lekeitio dira nagusienak. Artibairen kasuan, berriz, Markina eta Ondarroa gorapatu daitezke. Herri-guneetako puntu hauetan ibaibidearen zenbait zati nahiko eraldatuak topa ditzakegu.

Paisaiaren elementu adierazgarriena inguruan dauden pinu eta eukalipto landaketak dira. XX. mendeko azken hamarkadetan bertako landaretzak atzerapen nabarmena jasan zuen, eta baso naturalak sakabanatuta mantendu ziren.

Bailararen beheko eremuetan, ibaiaren uholde lautadan, kokatzen dira lur lau eta emankorrenak. Hori dela eta, zonalde horiek baratzak eta belardiak kokatzeko erabiliak izan dira. Nekazaritza eta abeltzaintza laboreak ibaiaren iba-

Situados al este de Bizkaia, son ríos de corto recorrido, como es habitual en la vertiente cantábrica. Ambos nacen en las faldas del monte Oiz y se dirigen hacia el norte tomando agua de diferentes afluentes. El río Lea desemboca en Lekeitio y el Artibai en Ondarroa.

Las cuencas hidrográficas de ambos ríos conforman la comarca de Lea Artibai.

### Paisaje modificado

Todo el cauce principal de los ríos **Lea y Artibai** se encuentra dentro de la Zona Especial de Conservación.

A lo largo del cauce de ambos ríos no existen núcleos de población excesivamente grandes. En el caso del Lea, los principales son Aulesti y Lekeitio. El Artibai, por su lado, cruza Markina y Ondarroa. Es en estos puntos urbanizados donde encontramos algunos tramos del curso del río bastante alterados.


El elemento más representativo del paisaje, son las plantaciones de pinos y eucaliptos que se encuentran en el entorno. En las últimas décadas del siglo XX, la vegetación autóctona sufrió un notable retroceso, manteniéndose bosques naturales dispersos.

En las zonas bajas del valle se sitúan los terrenos más llanos y fértiles, las vegas de los ríos.



Goi ibilguan ibarbasoaren kontserbazio egoera bailararen beheko zonaldeetan baino askoz hobea da.

El estado de conservación del bosque de ribera en el cauce superior es mucho mejor que en las zonas bajas del valle.



Euskadin, Leako itsasadarrean eta Txingudín aurkitu da bakarrik lurzorú gaziak maite dituen *Salicornia obscura*.

En Euskadi, solo en la ría del Lea y en Txingudi se ha encontrado la especie *Salicornia obscura*, amante de los suelos salados.

rretaraino ailegatzen dira, eta horrek kalte egin dio ibaiertzeko basoari. Kasu askotan, jarraipenik gabeko zuhaitz ilara bat baino ez da geratzen erribertan.

## Kalitate bikaineko ura

Ibaiaren uraren kalitatea oso ona da bi kasuetan.

Arrainen artean, estuarioan itsasotik sartzen diren espezieak azpimarratu behar dira, hala nola aingiraren kumeak diren angulak (*Anguilla anguilla*) eta izokin europarra (*Salmo salar*). Hauetaz gain, ibilguan gora eginda, amuarriak (*Salmo trutta*) eta ezkailuak (*Phoxinus phoxinus*) ugariak dira.

Ibilguan gora eta behera dabiltzan bi hegazti espezie goraipatu daitezke, martin arrantzalea (*Alcedo atthis*) ① eta ur zozoa (*Cinclus cinclus*) ②. Azken hori uraren kalitatearen bio-dierazle ezin hobea da, soilik erreka garbietan bizi diren makroornogabeek elikatzen baita.

Estuarioan, ur geza eta gazia nahasten diren tokian, ihi- eta lezkadi-formazioak aurki daitezke.

Por ello, estas son las zonas más utilizadas para la ubicación de huertas y praderas. Los usos agrícolas y ganaderos llegan hasta la orilla del río, lo que ha perjudicado al bosque de ribera. En muchos casos, solamente queda una única hilera de árboles junto al cauce.


## Agua de calidad excepcional

La calidad del agua del río es muy buena en ambos casos.

Entre los peces destacan las especies que entran en el estuario desde el mar, como las crías de anguila o angulas (*Anguilla anguilla*) y el salmón europeo (*Salmo salar*). Además de estas especies, aguas arriba abundan las truchas (*Salmo trutta*) y los piscardos (*Phoxinus phoxinus*).

Destacan dos especies de aves que suben y bajan a lo largo del cauce, el martin pescador (*Alcedo atthis*) ① y el mirlo acuático (*Cinclus cinclus*) ②. Este último es un perfecto bioindicador de la calidad del agua, ya que se alimenta de macroinvertebrados que únicamente viven en aguas limpias.

En el estuario, donde se mezclan el agua dulce y la salada, se pueden encontrar formaciones vegetales como juncales y carrizales.





Argazkia: Quintas

## Salburuako hezegunea

### Humedal de Salburua

**Salburuako hezegunea** Gasteizko kanpoaldean dago eta hiri inguruko altxor naturala bihurtu da. Bertako balio natural handia kontuan izanda, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) gisa babestu da, beste babes-figurez aparte.

Lau urmaelek osatzen dute hezegunea. Bi dira nagusienak, Betoñokoa (mendebaldean) eta Arkautekoa (ekialdean). Aipatutako bien artean, Duranzarreko urmaela eta Larreganako aintzira daude.

### Hezegunearen jatorria

Haren jatorria ulertzeko, Arabako lautadaren azpian dagoen akuiferoa aipatu behar da, Euskadiko akuiferorik handiena. Salburua, gainazaleko depresio batean dago kokatua, ondorioz, puntu honetan maila freatikoa azaleratzen da. Izan ere, hezeguneko urak lur-azpian dagoen ur masa honetan du jatorria batik bat.

XIX. mendetik hezegunea etengabe eraldatua izan da, gune ezberdinak lehortuz labore lurrak zabaltzeko asmoz. Inguruaren degradazio egoera ikusita, 1994. urtean Salburua berreskuratzeko plana martxan jarri zen udalaren eskutik.

Uraren kalitateari dagokionez, nitratoen kontzentrazio nabarmenak maiz antzematen dira



**Zikoinaren (*Ciconia ciconia*) komunitate handia azpimarra genezake.**

Destaca la gran comunidad de la cigüeña blanca (*Ciconia ciconia*).

El **humedal de Salburua** se sitúa a las afueras de Vitoria-Gasteiz, convirtiéndose así en un tesoro natural para la ciudad. Teniendo en cuenta su alto valor natural, se ha denominado Zona Especial de Conservación (ZEC) y Zona de Especial Protección para las Aves (ZEPA), además de regirse bajo otras figuras de protección.

Cuatro lagunas conforman el humedal. Dos son las lagunas principales, Betoño (al oeste) y Arkaute (al este). Además, situadas entre las dos mencionadas, se encuentran las lagunas de Duranzarra y Larregana.

### Origen del humedal

Para entender su origen hay que mencionar el acuífero situado bajo la llanada alavesa, el mayor acuífero de Euskadi. Salburua está situado en una zona donde hay una depresión del terreno, por lo que en este punto aflora el nivel

Ezpata belarra (*Carex riparia*) eta lirio horia (*Iris pseudacorusen*) bezalako espezieak azaltzen dira ur laminan. Horien hazkundera kontrolpean izateko, gizakiak bertan sartutako oreinak ikusi ditzakegu.

En la lámina de agua aparecen especies como el junco de ribera (*Carex riparia*) y el lirio amarillo (*Iris pseudacorusen*). Para controlar su crecimiento podemos ver ciervos introducidos por el ser humano.



egindako analisietan. Horien jatorria, Arabako lautadan garatzen den nekazaritzan erabiltzen diren oinarrietan oinarrituta dago.

## Hezeguneetako zuhaitz eta animaliak

Ur masa geldoetan ohikoak diren zuhaitz eta landareak aurkitzen ditugu eremu honetan. Hauen artean sahasak (*Salix atrocinerea*), halzaka (*Alnus glutinosa*), makalak (*Populus sp*), etab. Sahats kantauriarra (*Salix cantabrica*) go-raipatu beharra dago, Euskadin oso urria den endemismo kantauriarra.

Aurretik aipatu bezala, hegaztientzako interes bereziko gunea da Salburua, bai bertan bizi diren espezie sedentarioentzako, bai eta migrazioan edota negua igarotzera datozen espezie askorentzat ere.

Salburua Zadorra ibaitik gertu dago, eta Alegria, Santo Tomas eta Errekaleor ibaiadarrak hezegunearen lurraldetik igarotzen dira. Erreka horiek guztiek ezinbesteko funtzioa betetzen dute korridore ekologiko gisa.



Txilinporta txikia (*Tachybaptus ruficollis*) Salburuako hezegunean habiak egiten dituzten uretako hegaztientako bat da.

El zampullín común (*Tachybaptus ruficollis*) es una de las habituales aves acuáticas nidificantes en el humedal de Salburua.

freático. De hecho, el agua del humedal tiene su origen principalmente en esta masa de agua que se encuentra bajo tierra.

Desde el siglo XIX, el humedal ha sido modificado, habiendo sido desecadas diferentes zonas con el fin de extender las tierras de cultivo. Ante la situación de degradación de la zona, en 1994 se puso en marcha el plan municipal de recuperación de Salburua.

En cuanto a la calidad del agua, las concentraciones significativas de nitratos son frecuentes en los análisis realizados. Su origen parece que se encuentra en los abonos utilizados en la actividad agrícola que se desarrolla en la llanada alavesa.

## Flora y fauna de los humedales

En esta zona encontramos árboles y plantas típicas de las balsas de agua. Entre las especies destacan sauces (*Salix atrocinerea*), alisos (*Alnus glutinosa*), chopos (*Populus sp*), etc. Hay que subrayar la presencia del sauce cantábrico (*Salix cantabrica*), endemismo cantábrico muy escaso en Euskadi.

Como se ha mencionado anteriormente, Salburua es zona de especial interés para las aves, tanto para las especies sedentarias que viven aquí todo el año, como para muchas especies migratorias o invernantes.

Salburua se sitúa cerca del río Zadorra, cuyos afluentes Alegria, Santo Tomás y Errekaleor discurren por terreno del humedal. Todos estos arroyos cumplen una función imprescindible como corredores ecológicos.



Bolunzuloko errota (Kortezubi) /  
Molino de Bolunzulo (Kortezubi)

## Urdaibaiko ibai sarea

### Red fluvial de Urdaibai



Ipurtatsa / Turón  
(*Mustela putorius*)

Urdaibaiko Biosferan dauden ibai eta erreka guztiak biltzen dira Kontserbazio Bereziko Eremuan. Arro hidrografikoaren ibai nagusia **Oka** dugu, 27 km-ko luzerarekin. Bere bidean ibaia-dar anitzek urak bertan batzen dituzte, besteak beste, **Ugarte**, **Berrekondo** edo **Laga** errekek.

### Ibai-sare zabal eta konplexua

Ibai-sareak 183 km<sup>2</sup>-ko azalera du guztira, horrek Urdaibaiko arro hidrológico osoa hartzen du. Izan ere, ibaian gora gertatzen den eragin zuzena du ibaian behera aurkituko den egoerarekin. Horregatik, garrantzitsua da ibai-arro guztiak babestuta egotea.

Urdaibaiko erreka guztiak azkar jaisten dira itsasadarreraino, magal malkartsuetan behera. Hala ere, ibilguaren zati batzuk lauagoak dira, ibaierzeko landaredia ondo garatzen da, eta haltzadiak (*Alnus glutinosa*) dira nagusi.

La Zona Especial de Conservación comprende todos los ríos y arroyos existentes en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. El río principal de la cuenca hidrográfica es el **Oka**, con una longitud de 27 km. En su camino se le unen numerosos afluentes, como los arroyos **Ugarte**, **Berrekondo** o **Laga**, entre otros.

### Extensa y compleja red fluvial

La red fluvial tiene una superficie total de 183 km<sup>2</sup>, lo que abarca la cuenca hidrológica de Urdaibai al completo. De hecho, lo que ocurre río arriba influye directamente en la situación que nos encontremos aguas abajo. Por ello, es importante que las cuencas fluviales estén protegidas en su totalidad.

Todos estos arroyos descienden rápidamente hasta el estuario, descendiendo por sus escarpadas laderas. Sin embargo, hay partes del cauce que son más llanas, donde la vegetación de ribera se desarrolla bien, con predominio de las alisedas (*Alnus glutinosa*).



Golako erreka / Río Golako



- ① Trikopteroen larbak / Larvas de tricópteros
- ② Burduntzien larbak / Larvas de odonatos
- ③ Efimerak / Efimeras

Uraren kalitate ona adierazten dute intsektu hauek. / Estos insectos representan una buena calidad del agua.

## Bioaniztasun aberatsa

Uraren kalitateari dagokionez, populazio nukleo zein industria gune handirik ez dagoenez, kalitate bikaineko urak mantentzen dira. Horren adierazle dira bertan aurkitu daitezkeen ornogabeen komunitateak, aparteko bioadierazleak direnak. Gainera, beste hainbat espeziereen elikagai iturri dira, ur zozoa (*Cinclus cinclus*) edo amuarrainak (*Salmo trutta*) kasu.

Ur lasaiak mantentzen diren eremuetan, ibilguaren morfologiak lagunduta edo presa baten eraginagatik askotan, anfibio espezie anitz aurkitu daitezke. Hauen artean Busturiako erreka eta inguruetan ugaltzen den iberiar baso igelaren (*Rana iberica*) populazioak nabarmendu behar dira.

Berezitasun moduan, bi ugaztun haragijalaren presentzia azpimarratu beharra dago, bi-soi europarra (*Mustela lutreola*) eta ipurtatsa (*Mustela putorius*). Mehatxatuta dauden espezie hauen populazioak egonkortu dira Urdaibain, bai eta gora egiteko joera hartu ere.



Baso igela / Rana patilarga (*Rana iberica*)

## Rica biodiversidad

En cuanto a la calidad del agua, la ausencia de grandes núcleos poblacionales e industriales hace que se mantengan aguas de excelente calidad en la red fluvial. Muestra de ello son las comunidades de invertebrados que se pueden encontrar en ellas, que son bioindicadores extraordinarios. Además, son fuente de alimento de otras especies como el mirlo acuático (*Cinclus cinclus*) o las truchas (*Salmo trutta*).

